

Danak ill bear dogu, baina berbizteko

Zemendiaren atarian, edo orain esan oi danez araroaren asieran, Domuru-Santuru ospatzen dogu eta berari esku-tik elduta lez, Ildako Guztien eguna illa-ren bian. Gure ildakoak Jaungan bizi dirala gogoratzen deuskue egun aundi biok. Erri guztietako kanposantuak, txiki eta aldenduenak be, txukundu eta apaindu egiten dira egun orretarako. Lotsa barik azi diran bedarrak kendu eta etxekoan illobietan lora txortak ipinten dira. Oitura ederra benetan eta eustea merezi dauana. Gure aurretikoak gomutan ditugula aitzen emoten dau. Baina ortxe gelditu leike sarritan, gomutan ditugula esate utsean, gure ildakoei omenaldi bat eskeini orde, ingurukoan aurrean itxurak egite utsean. Arriskua badago beinpein.

«Il diranak, ara joan diranak ez datoz barriro gure artera», entzuten da bein baino geiagotan. Eirotzeaz dana amaitzen dala uste badabe, uste okerra. Badakit bai orrelako usteka be badabizana eta parra-parra ibili be gainera. Fededunak, ostera, ondo daki ori orrelan ez dana. Gureak ez dauala kanposantuko lurpean egiten, gure eriotzea bizitzaz aldatzea dana. Eguneroko bizitza bera be zer izan da ba etebagako berbizte bat baino geiago. Artu gaztetandiko argazki bat eta begiratu gaurko zeure argazkiri. Axe bera zarana badakizu esan egin deusuelako, zeure orduko arpegikerea eta gorpuzkerea gomutan dituzulako, baina ume denporako argazkirik ikusi ez dauanak azagutuko ete leuke bera nor dan sasoi-ko izatera eltzerakoan? Zeure orduko arpegikerea eta gorpuzkerea gomutan dituzulako, baina ume denporako argazkirik ikusi ez dauanak azagutuko ete leuke bera nor dan sasoi-

ko izatera eltzerakoan? Zeure zerbait il da or eta beste zerbait biztu. Zeu zara, baina beste bat. Larregi dinodala uste badozu, artu illabete batzuk zenduzaneko argazkia eta begiratu, artu zeure Leenengo Jaunartzekoa eta ikusi.

A txikitakoa joan zan, il zan, baina zeuk bizirik irau dozu eta egunetik egunera bizten zoaz, aldatzen zoaz. Orrelaxe eginak gara eta orixe dogu gure etorkizuna. Bizteko egin ginduzan Jaunak.

Gure illak bizi diran fedea ez da gaurkoa. Gure aurretikoak be sinisten eben orrenbeste. Orrexegaitik ainbeste ermita Euskalerriko mendietan, oraindino jentil zirala be, ilten ziranak lurra artzen eben lekuetan argiak eta gomuta ezau-garriak ipinten zituelako, kirstiñautasuna etorri zanean ermitak jaso ziralako. Danak ez dabe sorrera bardina eukiko, baiña askok bai beintzat.

Kristo be il egin zan, kurutzen il eben, baiña Aitak biztu egin eban. Apostoluak argi sentidu eben Krsitoren biztuerearen esperientzia. Eta Paulok gogor egiten eutsen Korintoko kristinauei. «Kristo illen artetik biztu egin dala iragarten bada, zuetariko batzuk zelan diño e illen biztuerarik ez dala? Illen biztuerarik ez bada, Kristo be ez zan biztu. Kristo biztu ez bada, barriz, gure iragartea alperrekoa da, zuen sinismena be alperrekoa da» (I Kor. 15, 12-14).

Il bearrak, emengo loturak eten bearrak zotinen bat edo beste atarateak —egin egiten gara edozertara be eta— ez dau esan gura beste bizitzaren federik ez dogunik. Ilteko jaio ginan eta danok ilgo gara, baina bizitza da gure etorkizuna.

S. BARRUETABEÑA, *cp.*